

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
NEREA YEREGUI BALDA
ANDER PRADOS OTAMENDI

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko urtarrilaren 21ean arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2025-01-21KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2025-01-21eko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Asier Galarza

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko abenduaren 20an, 62/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Asier Galarzari Beteluko frontoia erabiltzeko baimena ematea abenduaren 28rako frontenis txapelketa bat antolatzeko.

2. Aimar Zubillaga Sasiain

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko abenduaren 20an, 63/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Aimar Zubillaga Sasiaini Beteluko udaletxeko erabilera anitzetako gela erabiltzeko baimena ematea abenduaren 26,27, 30 eta urtarrilaren 2 eta 3 egunetan kantazaleen entsaioa egiteko.

3. Diegaby Hostal SL

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko abenduaren 26an, 64/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Diegaby Hostal SLri baimena ematea abenduaren 31tik urtarrilaren 1era eta urtarrilaren 5etik 6ra bitarteko gauetan ixteko ordutegia 7:00ak arte (gehi taberna husteko denbora osagarria) luzatzeko.

4. María Concepción Lazcano Molinero

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urtarrilaren 9an, 1/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: María Concepción Lazcano Molinerori hirigintza lizentzia ematea Beteluko 2. Poligonoko 31. Lursailean dagoen Lazcanoenean teilatua berritzeko.

5. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko urtarrilaren 16an, 2/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024ko abenduaren 23an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

3. MAILOPERI BURUZKO PROPOSAMENA

Mailoperi buruzko proposamen berria helarazi dute Mailope kultur elkartetik. Digitalizaziorantz pauso berriak eman nahi dituzte eta kudeaketa osoa (paperezko edizioaren eta edizio digitalaren prozesu guztia) bere gain hartu nahi dute. Horrek denak gastua handitzea dakar, 6 orduko lanaldia duen langilea kontratatuko bailitzateke. Beteluko Udalak zehazki, 1.400 euro gehiago ordaindu beharko lituzke 2025ean.

Hau dena ikusita, udalbatzara etorritako guztiek, aho batez, erabaki dute:

LEHENENGOA: Proposamenari oniritzia ematea.

BIGARRENA: Oniritzi hau proposamenak dakarren gastuarendako nahikoa eta egokia izanen den aurrekontu kreditua izatera baldintzatua dago.

4. JASOTAKO IDATZIAK

1.- TÜV Rheiland Navarra, s.a;

TÜV RHEILAND Navarra, S.A.ri baimena ematen zaio 2025eko martxoaren 6an Beteluko nekazaritzako ibilgailuei eta ziklomotorrei aldizkako azterketa teknikoa

egiteko udal-plaza erabiltzeko. Iragarki-taulan ikuskapenen datak eta ordutegiak jarriko dira.

5. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Geserlocal	F. kontabilitatea	535,92 €
Berria	F. 2025ko harpidetza	495 €
Iberdrola	F. Urberoa	7,16 €
Iberdrola	F. Udaleko pisua	10,14 €
Goiener	Eskolako abenduko argia	1.546,79 €
Goiener	Udaletxeko abenduko argia	1.482,17 €
Mantenimientos Iruña	F- Eskolako galdara gela	1.450 €
Rodriguez Ezpeleta	F. 2025-01	756,12 €
Rodriguez Ezpeleta	F. 2025-02	744,11 €
Venus Campos Walsh	F. DFA 37	2.833,41 €
Bitoriana C.B.	F. 01/24	816 €
IDM Medical	F.2352	128,84 €
Ezsa	F. E2432558 (Udala)	624,36 €
Wikai	F. 30182	112,10 €
Ezsa	F. E 2432590	147,62 €
Orona	F. 2404463203	355,74 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 127	133,10 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 128	264,99 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 129	552,97 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. 1/2025	90 €
Brico Depot	F. 364	10,90 €
Brico Depot	F. 65	20,85 €
IL. Lumina	F. 596	313,51 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 71	113,32 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 70	75,63 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 72	166,38 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 73	371,35 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 74	174,24 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 75	302,50 €
Rekalde Zurgindegia	F. 733	291,37 €
Rekalde Zurgindegia	F. 732	2.816,35 €
Rekalde Zurgindegia	F. 730	229,27 €
Rekalde Zurgindegia	F. 729	208,14 €
Rekalde Zurgindegia	F. 728	3.773,99 €
Urzubi	F. A 1413	273,80 €

Iberdrola	F. Alumbrado publico	1.236,10 €
Serinoski	F. Seinaleak	495,13 €
Juan Cruz Zabala	F.40	2.270,08 €
Casa Hemu SL	F. eguberritako apaingarriak	18,15 €
Merkabazar	F. eguberritako apaingarriak	12,90 €
Merkabazar	F. eguberritako apaingarriak	28,71 €
Casa Hemu	F. eguberritako apaingarriak	22,70 €
Tedi Comercio	F. eguberritako apaingarriak	7,38 €
Codisna	F. 25007 mantenua	2.235,60 €
Iberdrola	F. Alumbrado publikoa	654,71 €
Maite Garcia Satrustegui	F. A1/218	181,30 €
Rationalstock	F. 28075458 Kaiolen tapoiak	20,85 €
Plazaola Partzuergoa	F.2025/11	2.063,85 €
Dimarpe sl	F. 250031	171,15 €
F. Codisna	F. 25.028	239,58 €
Elena Burguete Mira	F. MINUTA	584,25 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. Abenduko mugikortasuna	126,01 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Kide	F. S2440	227,48 €
Rosario Estanga Arrizurieta	Sorgintxoko abenduko garbiketa produk.	14,25 €
Rosario Estanga Arrizurieta	Sorgintxoko abenduko janaria	49,23 €
Maite Garcia Satrustegui	F. A1/217	505,70 €
Veritas	F. kutxatik ordainduta	24,53 €
	DENETARA:	32.417,78 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.